

# itsasondo2.0

herriko aldizkaria 56. zk (otsaila 2024)

Eskerrik asko,  
**Koro!**

▼ **Korrika  
Badator!**

▼ **Mediku berria  
herrian**

▼ **Arbel-Aitzeko  
Junta aldaketa**

# aurkibidea

03	Udaleko berriak
04	Haurreskola
05	Urkiye eskola
06	Guraso Elkartea
07	Motzean
08-09	Hitzar
10-11	Korrika
12-15	Elkarrizketa: Koro Zabaleta
16	Arbel-Aitz
17	Motzean
18-19	Natura
20-22	Hemeroteka
23	Liburutegia / Errezeta
24	Agenda

## agurra



**2**024 urteko lehen alea dugu esku artean dugun 56. ale hau. Ziur gaude amorratzen egongo zaretela gurean pasa direnak irakurri eta herriko berriei gozatzeko, ezta? Ekin diezaiogun irakurketari, bada!

Ekintza mordera antolatu dira herrian, eta horien berri irakurtzeaz gain, ondorengo hilabeteetan antolatuta dauden ekintzen berri ere izango dugu. Besteak beste, aurten Korrika 23 pasako da eta Itsasondon bere geldialdia egingo du. Ziur ijitook ez garela atzean geratuko... kiroleko oinetakoak astin ditzagun, jantzi petoa eta Harro Herri abestia bozgorailuetan jarri!

Gainera, haurreskolako espazioaren garrantziaren inguruan irakurriko dugu, herrian dugun Hitzar Energia Komunitatearen batzarraren berri izango dugu, odoleen informazioa jaso eta Arbel-Aitzeko junta aldaketaz ere arituko gara, besteak beste.

Hori gutxi balitz, eta zuetako gehienok jakingo duzuen bezala, urte luzez gure mediku izan den Korok erretiroa hartu berri du. Berekin elkartu gara eta kontatutakoak zuekin partekatuko ditugu, ez galdu aukera herriko medikuak esan dizkigun zurrumuruak jakiteko.

Lerro hauetan adierazitakoez gain, badago zer irakurria eta goza dezagun irakurketaz, Itsasondo!

## Sarrerako bertsoak

Doinua:  
*ama begira zazu.*

Itsasondon daukagu zerbait berezia. Jende jatorra eta eskola txikia. Gure bizimodua da harrigarria. Laster eukiko dugu eskola berria.

**URKIPE  
ESKOLAKO HAURRAK**

# Udaleko berriak

.....  
Gaur egun gure gizarteak duen kezka iturri edo arazo nagusietako bat etxebizitzarena da, eta Itsasondo ez da hortik kanpo geratzen.  
.....

**D**enon ahotan dabilen gaia da; etxebizitza erosteko edo alokatzeko zailtasunak daude, eta horri gehitu behar zaizkio Itsasondo bezalako herri batetan etxebizitzek dituzten irisgarritasun arazoak.

Gai hau Itsasondoko ongizate lantaldeak ere aztertu du behin baino gehiagotan eta udalak gai horren inguruan zein eskua-hartze egin dezakeen jakiteko ezinbestekotzat jotzen zuen Itsasondoko etxebizitzaren gaur egungo errealitate zehatza zein den jakitea; horretarako Itsasondoko Udalak etxebizitzaren egungo egoerari buruzko azterlan bat jarriko du abian. Helburu nagusietako bat egungo parkearen egoera ezagutzea da, eta, batez ere, etxebizitza hutsen arazoa eta egungo parke eraikiak dakartzan irisgarritasun-arazoak azpimarratzea.

Besteak beste, honako hauek aztertuko dira:

- Etxebizitza hutsak. Zeintzuk diren. Haien egoera errolda/ur-kontsumo arabera.
- Etxebizitza eta irisgarritasuna. Zein etxebizitza diren irisgarriak.
- Metabolismo demografikoa: azken urteotako barne eta kanpo mugimenduak.
- Zaurgarritasunak. Zer nolako zaurgarritasun-mailak topa ditzakegu etxebizitza tipologiaren arabera.
- Baserrien egoera. Okupazio-maila eta lehen sektorearekin harremana.

Azterlana egiteko, Gislan taldea kontratatu da, eta asmoa da datuak esku artean ondorio batzuk ateratzea edo hipotesiak aztertzea, egungo parkea biziberritzeko eta Itsasondoko etxebizitza-politikarako egokienak diren etorkizuneko neurriak hartzeko. Lan hori bi fasetan banatuko da, eta orain lehenengoa hasi da; udal erroldako katastroko da-



tuak aztertuko dira, baita ur kontsumoak ere. Datu horiek guztiak datuak babesteko indarrean dagoen araudiaren arabera tratatuko dira.

Informazioa biltzeko lehen fasearen ondoren, etxebizitzari buruzko azterlanak zein helburu izango dituen eta zein galderari erantzun behar dion zehaztuko da.

Bigarren fasean, interesgarriak diren eremuak xehetasunez aztertuko dira, eta horietatik ateratzen diren ondorioak landuko dira.

Lehen fasea 2024ko lehen hiru hilabetekean amaitzea espero da, eta ondoren bigarren fasea jarriko da martxan.

Horrela, urte amaierarako argazki zehatz bat izango dugu, eta azterketatik ateratako ondorioekin Itsasondoko Udalak bere esku dituen baliabideekin etorkizunera begira erabakiak hartu ahal izango ditu.

Prozesu osoa Gislan enpresak gidatuko du. Enpresa horrek esperientzia handia du sektore honetan, inguruko herrietan antzeko lanak buru dituelarik.

Aldizkariko hurrengo aleetan azterketa honek emandako ondorioen berri izango duzue.





# Espazio eta materialen garrantzia haurreskolan

.....

Gure haurren lehen urteak ezinbestekoak dira haien garapen integralerako, eta haurreskolan igarotako orduak osagarriak dira haien ikaskuntza eta hazkunde pertsonalarekin.

.....

**E**gungo haurreskoletan materialen inguruan eboluzio handia egon da; geroz eta gehiago erabiltzen dira naturarekin bat datozen eta haurren beharretara egokitzen diren material nobleak, eta horien artean, bereziki, egurra.

Egurra, naturatik zuzenean eratorritako materiala da, eta bere testura berezi eta goxoarekin, plastikozko jostailuek eta altzariarik eskaini ezin dituzten esperientziak eskaintzen ditu. Trinkoa eta haurrentzat segurua izateaz gain, egurrak iraunkortasuna eta naturarekiko lotura sustatzen ditu.

Egurrezko jostailuak, altzariak eta beste elementu batzuk erabiltzeak haurren ingurunea naturalagoa eta atseginagoa bihurtzen du. Horrek, aldi berean, haurren emozio-egonkortasuna eta segur-

tasun-sentsazioa indartzen ditu.

Ildo horretan, Maria Montessori hezitzaile italiarra aditua da; hark landutako metodologian garrantzi handia ematen zaio materialen aukeraketari eta horiek aurkezteko moduari. Haurren beharretara egokitutako materialak aukeratzaren dira, materialek haur bakoitzaren ikaskuntza konkretu eta indibidualean lagunduko dute, eta haurra bera izango da protagonista eta zentroa.

Material egokia aukeratzeak haurren garapen autonomia eta berehalakoa bultzatzen du. Aldi berean, materialek haurren sormen eta irudimena sustatzen dute.

Montessoriren pedagogian ordena funtsekoa da; ondo antolatutako espazio batek gure barne orekan eragiten du. Garrantzitsua

da haurrak etxean bezala sentitzea; espazio harmoniatsu batean egoteak asko laguntzen du. Horretarako, guztia zaindu behar da; materialen aukeraketa, argiteria, espazioaren banaketa...

Azken finean, haurreskoletan egurra bezalako material nobleak txertatzeak ez du soilik ingurune ederrago eta naturalago bat sortzen. Berehalako eta esanahiz beteriko ikaskuntza aukera eskaintzen dute material horiek, eta haurren garapen osasuntsua eta harmoniatsua bermatzen dute. Egurrezko jostailu eta materialak erabiliz, haurreskolek haurren garapen integrala, autonomia eta ingurumenarekiko kontzientzia bultzatzen dute, eta etorkizuneko belaunaldientzat oinarri sendo bat eraikitzen laguntzen dute.

# Urkiye eskola

Aurtengo ikasturtean, STEAM proiektuaren barruan, bertako hazien lanketa egiten ari gara.

Ikasturtean zehar, aurrera eramango dugun proiektuarekin girotzeko eta udazkenak ematen dizkigun aukerei etekina ateratzeko, basora irten eta ezkurrak jaso genituen.

Eskolaratu ginenean, ernaltzeko zein ezkur zen egokia ikusteko proba bat egin genuen. Ezkurrak uretan sartu eta ondoratzen direnak dira ernaltzeko eta ondoren landatzeko egokiak diren ezkurrak.

Ezkurrak hezetasunetan ernaldutako ondoren, lorontzietan landatu ditugu eta orain hauek zaintzen ari gara.

Ezkurren aitzakiarekin, haritz zaharrak ikustera ere irteera egin genuen Etxarriko Hariztira, eta, bertan, Haritz Zaharren ibilbidea egin genuen.

Haziak zer diren eta nola zaindu behar diren ikasita, gure STEAM proiektua egiteari ekin diogu. Ikaztegiatoko baba txikiaren zaindari egin gara Cristina Enea Fundazioak aurrera daraman proiektuaren barruan. Baba txiki hori erein, hazi, lekak aletu eta babak gorde behar ditugu prozesu guztia aurrera eramateko.

Ilusioz ekin diogu proiektuari; baba txikia ernaldutako eta hazitegian sartu ditugu dagoeneko. Izango duzue gure proiektuaren berri hurrengo aldizkarian.



# Gazteak eta pornografia

.....  
 Azken ikerketen arabera, pornografiaren kontsumoa gero eta goizago hasten dute gazteek, zortzi urtekin, hain zuzen ere.  
 .....



**P**ornografia-atarietan gehien bilatzen den terminoetako bat "nola egin" da; horrek esan nahi du haur eta nerabe askok pornografia erabiltzen dutela sexualitateari buruz ikasteko.

Pornografia-orrietan adingabe horiek "sexu" gisa irudikatutako sexu-indarkeriazko ekintza mota guztiak aurkitzen dituzte, non emakumeen aurkako indarkeria normalizatzen, legitimatzen eta hutsaltzen den.

Asko dira pornografiaren kontsumoari eta maila psikologikoan eta sozialean duen eraginari buruzko ikerketak. Ikerketa horiek agerian utzi dute lotura argiak daudela pornografiaren kontsumoaren eta genero-desberdintasunaren, sexismoaren eta emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren artean, eta horrek argi eta garbi uzten du beharrezkoa dela adingabeek eduki hori eskuratzeko modua arautzea.

Pornografia maiz eta eten-gabe kontsumitzeak ondorio bereziki larriak izan ditzake gazteenentzat: izan ere, pornografia horren eraginpean zenbat eta

gazteago izan, orduan eta eragin handiagoa du sexu-portaeran eta ohituretan helduarora iristean. Adituek diotenez, pornografiaren kontsumoak nerabe eta gazteengan duen eragin okerrenetakoak pertzepzioaren distortsioa eta prestakuntza edo jarreraren deformazioa dira; izan ere, bizi duten eboluzio-etapa dela-eta, ez dute ikusten dutena ulertzeko heldutasun emozionalik.

Espainiako Gobernuak, Datuak Babesteko Espainiako Agentziarekin (AEPD) batera, neurriak iragarri ditu adingabeen pornografia-orrietarako sarbidea arautzeko; izan ere, webgune horiek gaur egun ez dute adin-egiaztapenik eskatzen. Neurri hori guztiz beharrezkoa bada ere, kontrol horiek sare sozial eta plataforma digital guztietara zabaldu beharko lirateke, pornografiak horretarako soilik erabiltzen diren plataformen mugak hautsi baititu, gazteek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak kolonizatuz. Gaur egun, ohikoa da sexu-eduki esplizitua izatea sare sozialetan, Twitterren eta WhatsAppen.



## Mediku berria hasi da

Mariasun Oiarbide  
Goikoetxea izena du,  
eta lazkaotarra da.

**E**skarmentu handia du osasun arloan. Orain arte, osasun zentro askotan aritu da lanean, baita Itsasondon ere hainbatetan, Kororen ordezkapenak egiten. Azken hiru urteetan Ordiziako mediku zentroan aritu da lanean, eta urtarillaren erdialdetik dago Itsasondoko kontsultan.

Koro Zabaletak erretiroa hartu du, 20 urtez Itsasondoko mediku izan ostean. Egun, oraindik ez dute Kororen plaza lehiaketara atera, eta ateratzen duten bitartean, ziuurrenik Mariasun izango da Itsasondoko medikua.

Lanaldi osoan hasi da lanean, eta egunero izango da herriko kontsultan. Ordiziako osasun zentroko lanak amaitzean, ordea, lanaldi erdiz egongo da: egunero, bai, baina ordu batzuk baino ez.



## Odol emaeleak

Jakina da Gipuzkoako Odol emaeleen elkarteak egiten duen lanak berebiziko garrantzia duela.


**U**rtez urte, odol emaele kanpainak sustatuz, bizia ematen dute. Hau da beraien leloa eta:

Odola ematea bizia ematea da. Itsasondoko herritarrak ere batzen dira ekimen honetara eta urtean bitan odol emaeleek Itsasondoko egiten duten deialdian parte hartzen dute, badakitelako euren odola emanez, bizia ematen ari direla.

Aurten, 40 odol emate egin dituen herritarra, Rosa Maria Lopez Mendizabal, omendu nahi izan dute, eta horrela jaso du bere konpromisoaren adierazgarri diren titulua eta odol emaeleen pin-a: ohorezko odol emalea izendatu dute, urrezko insigniarekin.

Hurrengo hitzordua apirilaren 18an izango da, egun berean txanda hartuz egin daiteke odol ematea telefono honetara deituz: 943007885.

Eskerrik asko, Rosa Maria eta odola ematen duzuen herritar guztioi.



## Azaroaren 25eko kamiseten salmenta

**Z**er da Azaroaren 25a? Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna da. Egun horren harira, Gaztelekuko gazteek kamiseta more batzuk egin genituen herria morez jantzteko eta eguna aldarrikatzeko. Aurreko asteetan zehar kamisetak tintatu genituen Gaztelekuan tailer modura, eta ondoren, azaroaren 24an, plazara jaitsi eta bertan saldu genituen. Gure helburua Azaroaren 25ari begira egingo ziren mobilizazioetan kamiseta horiek jantzita eramatea zen. Adin guztietako herritarrak gerturatu zitzaizkigun, hainbat tailatako kamisetak egin genituelako. Salmenta ongi joan zitzaigun, eta diru apur bat lortu genuen. Diru horrekin Gaztelekurako labe bat eskuratzea gustatuko litzaiguke.

Eskerrik asko hurbildu zineten guztie!

### Itsasondoko Gaztelekuko gazteen izena



# Energia garbia eta berriztagarria sortzeko lehen instalazio fotovoltaikoa estreinatu dugu

.....  
Iraola baserriko ustiategiko teilatuan jarri da Hitzarren lehen instalazio fotovoltaikoa. 10 kWtako instalazioa da, eta, denera, komunitateko 14 bazkidek hartu dugu parte proiektuan.  
.....





**D**uela urtebete pasatxo, 2022ko urriaren 25ean, sortu genuen Hitzar Kooperatiba herrian, eta jada estreinatu dugu gure lehen instalazio fotovoltaikoa. Iraola baserriko ustiategiko teilatu gainean jarri dira eguzki plakak; polikristalinozko 24 modulo edo plaka, denera. 80 metro karratuko azalera hartzen du instalazioak. Plaka horiek 13.200 Wp sortuko dituzte. Urteko produkzioa 14.871 kW/ordukoa izango da. Iraolako instalazioaren kostuaren erdia (% 53) Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako dirulaguntzaz finantzatu da.

Hasiera batean, 35 kWko instalazioa jartzeko asmoa bagenuen ere, Iberdrolak ez zigun horretarako baimenik eman, landa eremuetako instalazioa izanik, bestelako arandiak baitaude.

Bigarren eskaera batean, 10 kW instalatzeko baimena eskuratu genuen. 2024ko otsailean instalazioa Iberdrolaren sare publikora konektatua egotea aurreikusten dugu. Urtea amaitu aurretik, Hitzar Energia Komunitateko 14 bazkidek jasoko dugu instalazio horrek sortutako energiaren onurak.

Komunitate bateko kide garelako esateaz gain, orain, bai, orain esan dezakegu isurketak murrizten laguntzeaz gain, etorkizun garbi eta iraunkorrago batean inbertitzen ari garela.

Proiektu honen bidez ari gara pixkanaka Hitzarrek hasieran bere buruari ezarri zizkion helburuak betetzen: tokian tokiko baliabideekin kontsumo eredu arduratsua eta jasangarria sortzen ari gara.



**Egin zaitez bazkide eta zu ere izan energia trantsizio honetan gure bidelaguna.**

## AURRERA BEGIRA, ARGI GEHIAGO PIZTEN

Energia burujabetza lortzera bidean, hauxe da energia komunitatearen lehen proiektua, baina ez da bakarra izango. Izan ere, berri onak ditugu! Esku artean beste proiektu bat dugu, eta herritar eta bizilagunekin ere lehen bilerak egin ditugu. Poliki badoa ere, 2024an gauzatuko dugula seguru gaude.

Eraldaketerako norabidea definitu eta energia berriztagarria ekoizteko bideak jorratzen jarraitu nahi dugu elkarrekin, eta gogoz gaude energia ekoizteko eredu burujabe, iraunkor eta orekatuago baterantz ibilbidea batera egiteko.

Baina Hitzar ez dugu nahi soilik herri mailako proiektu gisa garatzea. Goierri burujabeago baten alde lan egin nahi dugu, eta horretarako inguruko udalerrietako hainbat herritar eta zinegotzirekin egin ditugu bilkurak. Hitzarrek hasiera-hasieratik Goierri hedatzeko izan duen bokazioari eutsi eta pixkanaka urratsak ematen ari gara, kooperatibaren berri emanez eta bertan gara daitezkeen proiektuen gaineko hausnarketak beste udalerri batzuetako kideekin partekatuz.

## BATZAR NAGUSIA

Duela urtebete pasa sortu genuen Hitzar Kooperatiba herrian, bi urteko lanaren ondoren. Ordutik, herrian energia burujabetzaren bidean pausoak emateko erreferentziatzeko espazio bihurtu da Hitzar. Itsasondo eta Ordiziako 52 herritar konprometitu gara proiektu berriztagarri honetan bidea eraikitzen, baina seguru gaude gehiago izango garela.

Urte honetako ibilbidea laburtu eta Hitzarrek dituen erronken berri emateko asmoz, Kooperatibaren Batzar Nagusia egingo dugu, otsailaren 28an, Kulturgunean, 18:00etan.

23.korrika

**HARRO  
HERRI**

Irundik Baionarat  
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



# Korrika Itsasondon



.....  
Euskaltzaleentzat gorritz markatzeko eguna da martxoaren 14a, orduan hasiko baita 23. Korrika, Irunen. Eta martxoaren 24an amaituko da, Baionan. Bitartean, Euskal Herriko hamaika herri eta auzo igaroko ditu 11 egunetan, Harro Herri lelopean, eta 2.700 kilometroko ibilbidea burutuko du.  
.....

**E**uskal Herrian barna egun batzuk igaro ondoren, martxoaren 23an, larunbatean, Gatzagatik itzuliko da Korrika berriro Gipuzkoara, eta Deba-goienean eta Goierriin izango da goizean, harik eta eguerdian Tolosaldera iritsi arte.

Ordiziako kaleak zeharkatu ondoren, Itsasondon eguerdiko 12:09ean sartuko zaigu Korrika martxoaren 23an eta Legorretatik barrena urrunduko zaigu Tolosalderantz.

1980an Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen lehen Korrika antolatu zenetik, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuenetakoa da Korrika. Lehen ekitaldi hartatik, 22 Korrika eta 43 urte igaro dira.


Korrikak euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu.

23. Korrikan, Azterketak Euskaraz kolektiboa omendu nahi dute, edo, zehazki, baxoa eta brebeta euskaraz egiteko borrokan aritu diren eta ari diren ikasleak. Aitortza hau haien egoera ezagutzera emateko bozgorailua izan daiteke: Euskal Herri osoan, eta hemendik kanpo ere, jakin dezatela gazte horiek egun ezin dutela ikasketen zati garrantzitsu hori gure hizkuntzan burutu.

Korrikaren antolaketan parte hartuz, Korrika laguntzaile eginaz edo Korrikako materiala erosiz lagun dezakezu.

Aurtengo korrika girotuko duen abestia Maite Arroitauregi "Mursego" eibartarrak konposatutakoa da.

Lerro hauen bidez herritar guztiei gonbidapena luzatu nahi dizuegu martxoaren 23an herriko kaleak bete eta Korrikari mezezi duen harrera egiteko!!



Korrikaren iritsiera behar den bazala ospatzeko, Altzaga, Arama eta Itsasondoko herriek Korrika batzordea osatu genuen urtarrilean. Ordundik hona, lau bilkura egin ditugu: Korrika laguntzailak egin, "Korrika lagun" izateko deialdia komertzio zein enpresetan zabaldu, kilometro eresketa sustatu eta Korrika etorrera girtzeko eta egunerako bertako egitaraua osatzea izan da batzordearen eginbeharra.

Hiru herritako dozena bat lagun bildu gara bilera horietan eta egitarau oparoa prestatu da. Ekintzak hiru herrietan zehar banatu ditugu eta deialdia egiten dizuegu ekintza hauetan parte hartzera:

## PROGRAMAZIOA

### Martxoak 14, osteguna:

18:00: Pintxo-jana. Altzagako Ertoetxen.

19:00: Bizkarsoro film emanaldia. Altzagako Ertoetxen.

### Martxoak 15, ostirala:

18:30: "Emakume gazteak eta musika" solasaldi eta emanaldia Ianire Aranzabe, Esti Markez eta Eider Saezekin. Itsasondoko Bizi Nahi elkartearen.

20:00: Kantu poteoa eta afaria, Arrikutz elkartearen.

### Martxoak 22, ostirala:

17:00: Korrika txikia. Aramatik Itsasondora.

18:00: Askaria eta jolasak. Itsasondoko frontoian.

### Martxoak 23, larunbata:

12:00: Korrika.

13:00: Triki poteoa. Itsasondotik zehar.

14:00: Herrien arteko bazkaria. Itsasondoko frontoian.



# Koro Zabaleta

## 20 urtez Itsasondoko medikua

Koro Zabaleta, orain gutxi arte Itsasondoko medikua. Hernanin jaio zen duela 67 urte eta Hernanin bertan osatu du familia.

### Non ikasi zenuen?

Hernanin. 14 urte bete arte mojen ikastetxe batetan aritu nintzen eta batxilergoa bukatzera Donostiara joan nintzen. Nire etxean zazpi senide ginen, ni gazteena. Medikuntza ikasketak egitea erabaki nuen eta Valladolidera joan nintzen. Bertan 6 urte pasatu nituen. Han lagunak egin nituen, parrandak... dena ez zen ikastea izan. Oso ondo pasatu nuen. Euskaldunok derrigorrez Valladolidera joan behar genuen garai hartan, Frankoren garaian, eta, hortaz, euskaldun

asko elkartu ginen han. Oroitzapen oso onak ditut.

### Eta zergatik garai hartan Valladolidera?

Bilbon Medikuntza Fakultatea bazegoen, baina bizkaitarrentzat. Gipuzkoarrok eta arabarrok Valladolidera joan behar genuen, eta bigarren aukera gisa Zaragozara. Eta bertan gauza asko antolatu genituen; esaterako, euskara klaseak ematen genituen. Fama txarra genuen egia esan, liskarrak izan genituen, zaratatsuak ginelana-eta.

### Liskar asko?

Beno, bai, adibidez ni bigarren kurtsoan nengoela unibertsitatea itxi ziguten. Han euskaldun asko ginen, kasualitatea. Eta kurtso horretan ekainean joan behar izan genuen guztia erre-kuperatzera eta azterketak ahoz egitera. Behin baino gehiagotan sartu zen polizia geletan.

### Noiz bukatu zenituen ikasketak?

1980an.

### Eta ikasketak bukatu ondoren, zer?

Lana toki askotan egin dut.

Azpeitian, Erreterian, Irunen... Master bat ere egin nuen larrialdien inguruan, Donostian. Tartean ezkondu egin nintzen eta hiru seme izan nituen. Lana eta familia uztartzeko lan asko egin nuen gauetan, eta nagusiagoak egin zirenean nahiago izan nuen familia-mediku gisa lan egin. Oposaketak gainditu eta Itsasondora etorri nintzen.

### **Noiz hasi zinen Itsasondon?**

Irailean 20 urte beteko dira Itsasondora etorri nintzela.

### **Eta zergatik Itsasondo?**

Ondo pentsatutako erabakia izan zen hona etortzea. Pixka bat aspertuta nengoen Donostialdean eta leku txiki baten bila nentorren. Familia guztia ezagutzea dut gustuko: aitona-amonak, seme-alabak, haurrak... jarraipen hori egitea.

Gaur egun gauzak asko aldatzen ari dira, ordezkapen asko daude, baina pazienteak ezagutzea oso garrantzitsua dela deritzot, jarraipen hori egitea. Oso polita da. Egia da jendearengan osasunari dagokionean beharakadak ikusten dituzula, eta ez da beti erraza, baina bizitza horrelakoa da. Nik beti esaten dut: gaur ondo zaude? Disfrutat, bihar ez dakigu nola egongo garen.

### **Nola izan zen hasiera hura?**

Garai hartan hasi ziren mediku etxeko obrak eta plazan egon ginen, txiringito hartan. Gero egungo osasun-zentrora etorri ginen, eta Arantxa erizaina ere hemen hasi zen. Talde bezala ondo funtzionatu dugu, elkarren osagarri izan gara.

Oso gustura egon naiz hemen,

mugitzeko aukera izan dut, baina ez zait burutik pasa ere egin Itsasondotik beste herri batera mugitzea, ondo sentitu izan naiz, hizkuntza, herritarrak...

### **Familia-medikua izatea aukeratu zenuen. Lehen mailako arreta asko kritikatu izan da.**

Gizartea asko aldatu da. Eta nik beti esan izan dut gauzak atzorrako nahi ditugula, presa dugu beti eta horrela ezin da ondo lan egin. Bai jendearen partetik eta baita administrazioaren partetik ere. Gauzak pausoz pauso egin behar dira eta pazientziarekin. Nire irakasle batek zioen, "lo más normal es lo más frecuente"; hau da, ezin dugu beti gauza txarrak gertatuko zaizkigula pentsatzen egon, ez ginateke biziko. Gauzak etorriko dira, zalantzarik gabe, baina... alde horretatik gauzak asko aldatu dira.

Gero eta diagnostikorako proba gehiago egiten dira, baina horrenbeste behar dira? Gaur egun osasun arloan edonor sartzen da, edonor da eztabaidatzeko gai, nahiz eta gaiaz ez jakin. Eta exijentzia maila asko igo da. Ni askotan harrituta geratzen naiz, izan ere, zentzurik gabeko gauzak ere entzuten dira. Eta bestetik, belarrek ere beren tokia dutela pentsatzen dut, medikamentuen sorrera bertan baitago, gero eman den bilakera bestelako da, baina bai, hor daude.

Bizitzen ikasi behar dugu, disfrutatzen daukagunarekin. Denok dakigu zer egiten dugun ondo eta zer gaizki, eta garrantzitsua da norberak bere burua zaintzea.

### **Industria farmazeutikoak indar asko du. Komertzialak hona etortzen dira? Zer dela eta?**

Ikerkuntzan lan egiten dute. Kontua da hau guzti esku pribatuetan dagoela, ikerkuntzarako dirua behar da eta farmazeutikoek dirua daukate. Molekulak ateratzen dituzte, produktu berriak, eta urte batzuetan beraiek daukate produktua saltzeko eskusibotasuna, ez dakit, 5-10 urtetan zehar. Gero, eskusibotasuna galtzen dutenean, prezioa jaisten da eta bakoitzak berea saldu nahi du. Diru asko mugitzen da mundu honetan.

Adibidea kolesterolarekin daukagu. Demostratuta dago estatistikak hartu eta kolesterola jaitsi egiten dela. Jaisten dena kolesterol totala da. Kolesterola gaixotasun bihurtu dugu, eta ez da gaixotasuna, arrisku faktore bat da. Azukrea, loditasuna, tabakoa, sedentarismoa, hipertentsioa, diabetesa... bezala. Baina kolesterolarentzat medikazio bat lortu denez, pilulak hartu eta listo, oso ondo saltzen da, dirua balio du, eta jendeak nahiago du pilula bat hartu eta nahi beste jan edo ez zaindu.

### **Eta nola erabakitzen da marka bat edo beste errezetatu?**

Demagun, anginak dituzu. Amoxicilina jarriko dizut. Abize-na jar diezaioket (farmazeutika) edo ez. Nik ez dut jartzen. Eta farmazian medikuak zehaztutako prezioa duen marka batetako saldu beharko dizute. Baina lehen hori ez zen posible, interes ekonomikoak direla-eta. Guztiak baliokideak dira, printzipio aktibo bera dute, ikertuta daude. Baina ez zitzaien komeni.



Vielhan.



Maria Cristina hotolean, Covid garaian.



Urdaburun.



Onddin, elurretan.

### Errezeta bidezko medikamentuak asko jaitsi al dira azkenaldi honetan?

Ez, antzera daude. Desagertu direnak nahasketak zituzten medikazioak dira. Lehen agian krema batetan hiru printzipio aktibo zeuden; bada, horiek kendu dira. Horiek ordainduz lor daitezke. Orduan, nahasketa medikuak egin behar du. Adibidez, infektatuta dagoen ekzema bat sendatzeko lehen kortisona pixka bat eta antibiotikoa duen krema bat errezetatuko nioke pazienteari. Orain ezin da hori egin, nahasketa hori medikuak egin behar du hainbat medikamentu errezetatuz. Lehen Frenadol bezalakoak errezeta zitezkeen, orain ez, nahaste-borraste bat direlako.

### Errezetarik gabe antibiotikorik bai?

Gizarteak asko presionatzen du. Niri oso ondo iruditzen zait farmazietan errezetarik ez baduzu antibiotikoa ez saltzea. Erresistentziak pil-pilean daude eta ez dira antibiotiko berriak azaltzen, zaindu egin behar ditugu dauzkagun antibiotikoak eta behar direnean hartu.

### Zenbat urte eman dituzu medikuntzan?

41 urte inguru. Gustura nengoen eta luzatu egin dut, baina jubilatzeako momentua iritsi zait. Askok disfrutatu dut, asko gustatzen zait-eta.

### Nabaritu duzu murrizketarik azken urte hauetan?

Osakidetza enpresa bat da azken finean... Arazoa da pre-

bisio falta izugarria egon dela, bazekiten mediku falta izango zela eta ez dira neurriak hartu. Orain egun batetik bestera ez da arazoa konponduko, mediku falta dago eta datozen urteetan mediku asko jubilatuko da. Medikak formatzeko 10 urte behar dira, 6 ikasketak egiteko eta 4 erresidentzia egiteko. Hemen aspalditik eskatzen ari ziren MIR plaza gehiago jartzeko. Ez zen neurria hartu, hori dirua da-eta. Erabaki horrek Madrildik etorri behar zuen eta ez zen etorri. Murrizketak egongo dira, baina, gainera, mediku falta ikaragarria dago.

### Bokaziozkoa da eta izan behar da?

Bai, hala beharko luke. Medikuntza egiteko sekulako nota behar



da, jende oso ona dago, baina denok ez dugu balio jendearekin lan egiteko, eta beharrezkoa da bokazioa. Hori ez da neurtzen. Denbora asko pasatzen dugu pazienteekin eta horretarako prest egon behar dugu.

### **Eta orain, deskantsua?**

Bai, hori bai. Baina borrokatzen jarraituko dut, kanpotik. Esaterako, otsailean, *"La deriva de la atención primaria"* hitzaldira joango naiz, interesatzen zaidalako; barrutik ez, baina beste aldeetik borrokatuko dut.

### **Nola bizi izan zenuen Covid garaia? Zaila izan zen?**

Bai, ezjakintasuna, presioa... Txinan gertatzen zena entzuten genuen, baina inork ez zuen ezer ere esaten, eta ez genekien zer etorriko zen. Gainera, gaur egun, komunikabideek beti albiste tragikoak ematen dituzte eta okerrera erakusten digute. Gero, egia da; ez zen samurra izan. Gu, medikuak, pertsonak gara, eta batzuek ikaragarriko beldurra zuten. Ez genekien zer zetorren, baina ondorioak larriak zirela argi zegoen. Eta guztiok elkartzuz gauza onak ere etorri ziren, medikamentu berriak, txertoak... badakit jende askok ez duela horretan sinisten, baina, gaur egun nola gauden ikusita, asko zor diegu txertoei.

Birmoldaketa bat egin zen, nahiko azkar. Telefonoz artatzea oso gogorra da. Jendea ez dago gustura, baina gu ere ez. Badi-rudi medikuak gustura gaudela pazienteak telefonoz artatzearekin, baina ez. Kontsultara sartzen zaren heinean nik informazioa jasotzen dut.

### **Non ibili zinen Covid garaian?**

Itsasondoko osasun-zentroa itxita egon zen bitartean Ordizian

aritu nintzen. Baina hotelean maiatzera arte edo egon nintzen (hoteles sanitarizados), bi hilabete inguru. Esperientzia polita.

### **Zein hoteletan?**

Maria Cristinan. Bertatik igarotzen ziren larri ingresatuta egondakoak, oraindik positibo zirenak eta etxera joateko moduan ez zeudenak. Luxuzko gelak. Kontu handiz ibiltzen ginen; oheak, esaterako, pazienteek egiten zituzten. Talde polita osatu genuen, eta bere txarrean ondo ibili ginen.

Gure artean ere bada oso-oso gaizki pasatu duen medikurik. Beldurra. Eta oraindik badago beldur hori, kalean ere bai. Egundakoa gripea bezala da. Aurten covid asko dago, baina gripea sekulako egurra ematen ari da. Garbi dago adinarekin gure gorputza nekatuta dagoela eta defentsa gutxiago dituela, baina horregatik ez gara beldurtu behar.

### **Lana etxera eraman izan duzu?**

Bai, askotan. Kasu larriak batez ere. Kasua errepasatu, egindakoa ondo ote dagoen pentsatu... Gure naturan dago hori. Ez da erraza. Eta emaitza garrantzitsuen zain bazaude, lanera etorri eta lehenengo gauza ordenagailuan begiratu. Bai.

### **Eta nolakoak dira harremanak pazienteekin?**

Aurrean duzun pertsonaren araberakoak. Batzuek gauzak asko errazten dizkizute, beste batzuek ez hainbeste. Aurrean duzun pertsona pixkanaka ezagutzen zoaz, eta, horrela, zer proposamen egin ere errazagoa da. Batzuekin besteekin baino errazagoa. Eta beldurra denok daukagu.

Hainbeste urte eta gero jende asko ezagutzen duzu, beren his-

toria ezagutzen duzu eta maite dituzu. Medikuairenera laguntza bila datoz. Jende asko bakarrik dago eta osasun-zentroan laguntza medikoaz gain babesa jasotzen dute.

### **Momentu onak izan dituzu?**

Bai, noski. Askotan ikusten duzu laguntza pixka batekin jendeak hobetzen duela eta pozgarria da.

### **Zein zaletasun duzu?**

Irakurtzea izugarri gustatzen zait, bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere. Erosten ditudan liburu guztiak euskaraz idatzitakoak dira. Liburutegitik hartzen ditut gaztelaniazkoak. Euskararekiko militantziagatik. Nire semeek ondo dakite. Olentzero edo urtebetetzeetan, beti egongo dira liburuak hor.

Horrez gain, antzerkia ikustea, kontzertuak, mendia, bidaiatzea, jendearekin egotea...

### **Mendizaletasuna nondik datorkizu?**

Gazte-gaztetatik igandero mendira joaten ginen, koadrilan. Ni egunero joaten naiz mendira, ibiltzera. Eta askotan esaten didate ea nola ausartzen naizen bakarrik joaten. Ni beti joan naiz bakarrik, eta istripuren bat badaukat gustatzen zaidana egiten gertatuko zait. Mugikorra eramaten dut badaezpada eta ondo sentitzen naizen bitartean mendian ibiliko naiz. Kirolik onena da gorputzarentzat, eta baita buruarentzat ere.

Eta bidaiatzea, tarteka. Orain espero dut pixka bat gehiago mugitzea. Baina oraindik planak ez ditut egin. Orain oporretan egongo banintz bezala nago. Disfrutatzeke ez da gauza asko behar. Gogoia. Amona naiz, bi biloba ditut eta beraiekin denbora pasatzea ere ederra da.

Leire Irastorzak hartu du lehendakari makila, Unai Agirreren eskutik. Datorren urtarrilera arte, bera izango da Arbel-Aitz elkarteko lehendakaria.



## Lehendakari berria du Arbel-Aitz elkarteak

Urtarrileko azken larunbatean urteko batzar orokorra egin zuen Arbel-Aitz gastronomia elkarteak, eta, beste hainbat gairen artean, lehendakari berria hautatu zuten batzarrera joan ziren bazkideek. 25 lagun bildu ziren batzarrean, eta aho batez onartu zuten zuzendaritza batzordeak egindako proposamena: Leire Irastorza izatea lehendakari berria.

Irastorzarekin batera, zuzendaritza batzordea osatzen duten bazkideak dira: Juan Jose Jaramillo, Esteban Sarasola, Kandido Ezeiza eta Nagore Etxeberría. 2024an zuzendaritza batzordera sartu diren bazkideak, berriz, hauexek dira: Dani Benitez, Aitor Arrospide, Asier Garro, Gotzon Izkierdo eta Gorka Tellería.

Lehendakari berria aukeratu eta zuzendaritza batzordeko kide berriak aurkeztu aurretik, 2023an egin zen batzarreko akta onartu zen, aho batez. Eta jarraian, 2023an elkartean egindako konponketa eta man-

tentze lanen erreposoa egin zen, eta Arbel-Aitz elkarteak urte osoan egindako ekintzen berri eman zen. Diru kontuak ere jakinarazi ziren, baita azkenaldian elkartean egon diren arazoak eta zuzendu beharrekoak aipatu ere.

Eta lehendakari berria onartu ostean, batzarra amaitu zen, mokadutxo batekin. Bazkide kuadrilla batek afaria egin zuen elkartean, batzarrari amaiera emateko.

### BAZKIDE BERRIEN BILA

Egun, 54 bazkide ditu Arbel-Aitz elkarteak, horietatik zortzi baino ez dira emakumezkoak. Bigarren giltza, berriz, 10 lagunek eskatua dute, eta horietako sei dira emakumezkoak. Bazkideen batez besteko adina 50 urtetik gorakoa da; oro har, gazteek ez dute bazkide egiteko ohiturarik.

Elkarte askotan gertatzen den moduan, bazkide kopurua gutxituz joan da. Batzarrean jakinarazi zen bezala, bajak altak

baino gehiago izan dira azken urteetan, eta hori da joera. Iaz, esaterako, sei bazkidek eman zuten baja, eta bi alta eta bi bigarren giltza eskaera baino ez ziren egon.

Maiz saiakera egin den arren, inor gutxi animatzen da elkarteko komunitateko kide izatera. Sartzeko, ez dago sarrera kuotarik, eta urtean, 360 euro ordaindu behar ditu bazkide bakoitzak; bigarren giltzaren jabe denak, berriz, 90 euro, urtean. Guztia aldi batean ordaintzeko aukera dago, edo hilabetez hilabete.

Lagunartean zein familiarekin elkartzeko aukera ematen du elkarteak, jatorduak zein askariak egiteko. 70 bat lagunentzako lekua dago, eta ongi hornitutako sukaldea: suak, pare bat parrilla, plantxak eta labeak.

Elkarteko bazkide ez den herritarren batek elkarteazagutu edo ikusi nahi badu, zuzendaritzako kideren batekin harremanetan jar daiteke.

# Araceli Velasco eta Juan Antonio Luna

.....  
Itsasondoko lasaitasuna ez  
lukete ezergatik aldatuko.  
.....



## Noiz etorri zineten Itsasondora bizitzera?

2023ko maiatzean.

## Non bizi zineten lehen?

Ordizian.

## Zergatik erabaki zenuten Itsasondora etortzea?

Gustatzen zitzaigun etxe bat aurkitu genuelako eta gure alaba ere hemen bizi delako.

## Zer gogoratzen duzue etorri zinen lehen egun hartatik?

Bizitzeko herri oso lasaia zela.

## Zer lanbide duzu?

**A:** 20 urtez aritu naiz garbitzaille Majorin. Orain langabezian nago.

## Itsasondotik zer ez zaizue gustatzen?

Ez dago gustatzen ez zaigun ezer.

## Itsasondotik zer gustatzen zaizue?

Lasaia da, ondo komunikatuta dago eta bizitzeko behar den guztia du.

## Zer zaletasun dituzu?

**A:** Ibiltzea eta jostea gustatzen zait.

## Janaririk gogokoena.

Paella.

## Edaririk gogokoena.

Garagardoa.

## Gogoko duzuen Itsasondoko edo Goierriko leku bat?

Txindoki.

## Zerk eginarazten dizu irribarre?

**A:** Nire bilobekin egoteak eta noizean behin dantzatzekak.

## Itsasondon biziko ez bazinete, non biziko zinatekete?

Ordizian.



# Trantsizio energetikoa eta biodibertsitatea Itsasondon

.....  
Klima Aldaketari Buruzko  
Gobernu Arteko Taldeak, IPCCk,  
esan digu klima-aldaketak  
planeta osoari eragiten diola  
eta bizkortzen eta  
areagotzen ari dela.  
.....



**G**ainera, azpimarratzen du premiazkoa dela neurri anbiziotsuagoak hartzea sektore guztietan eta eskala guztietan, eta etorkizun iraunkorra eta bizigarria bermatzeko lehen munduko isurketak gutxienez erdira murriztu beharko ditugula.

Energia-trantsizioa da, argi eta garbi, emisio kutsatzaileak murrizteko dugun bide nagusietako bat; baina beharrezkoa da horri ekitea natura eta haren biodibertsitatea kontuan hartuta, gure planetako bizitzari eusten dioten ekosistemak zainduz.

Aldizkari honetan aurkitu ditzakezue Itsasondon sortutako HITZAR energia kooperatibaren hainbat informazio, eta, burujabetza energetikoa helburu, herrian egiten ari den lanaren berri.

Energia hainbat kontutarako erabiltzen dugu, hala nola gure etxeak berotzeko, janaria prestatzeko, munduan zehar mugitzeko eta behar-beharrezko ondasunak ekoizteko; baina energia horrek ingurumena errespetatu behar du. Horregatik, Europako Batasunak gutxienez energiaren kontsumoaren % 32 iturri berriztagarrien bidez sortutakoa izateko helburu loteslea du, eta urte horretarako biodibertsitateari buruzko estrategia bat garatu du, gure planetako biodibertsitateari eragindako kaltea saihestean ez ezik, birjartzean ere oinarritzen dena.

Eta Itsasondon ere estrategia horretan parte hartzen ari gara. Karbono dioxidoa (CO2) berotegi-efektuko gas nagusia da, isurketa guztien hiru laurden inguru eragiten baiti-

tu. Milaka urtez egon daiteke atmosferan, baina, zorionez, aspaldi asmatu zen CO2 hori xurgatzeko makina: zuhaitza. Zuhaitzek atmosferako karbonoa finkatu eta metatzeko gaitasuna dute.

Basoen karbono hustuleku izaera hori baso-biomasari eta lurreko karbono erreserbei zor zaie, horiek atmosferatik xurgatutako karbonoa ehundaka urtetan metatu baitezakete. Horregatik, klima aldaketa arintzeko mundu nahiz eskualde mailako estrategietan oinarritzko ekimena da basoen karbono hustuleku gaitasuna sustatzeko neurriak hartzea.

Horrela, harizti bateko egurrak 350 tona karbono metatzen ditu hektarea bakoitzean, eta lurzoruak beste hainbeste, humus moduan. Kontu horiekin, Itsasondoko basoek milioi



Irudia: haritz eta gaztainondo landaketak Itsasondon.



erdi bat tona karbono metatu ditzakete, ekarpen polita atmosferako CO<sub>2</sub>a gutxitzen joateko.

Baina Itsasondoko basoek oso egoera anitzak erakusten dizkigute. Inguru honetan azken hamarkadetan garatu diren basogintza praktikek helburu bakarra izan dute: onura ekonomikoak lortzea; eta horrek basoek eskaintzen dituzten bestelako zerbitzuekiko arduragabekeriaz jokatzearagin du.

Itsasondoko basoek beren karbono metaketa handiagotzeko aukera nabarmenak

dituzte, oso gazteak baitira. Gaur egun dituzten karbono izakinak beren potentzialetik urrun daudenez, baso helduetara bideratzeak karbono izakinetan %130eko gorakada izatea eragingo luke. Lurreko karbono erreserbei dagokienez, berriz, kudeaketa egoki batek gaur egungo erreserbak %250 handiagotzeko aukera emango luke.

Egoera horretan, basogintza sektorean paradigma aldaketa baten beharra ezinbestekoa da. Izan ere, bertako espezieak berreskuratu eta kudeaketa arduratsu bat garatzeak aukera ematen du, karbono hustuleku gaitasuna handiagotzeaz gain, ekosistemen egitura eta funtzioak lehengoratu eta eskaintzen dituzten zerbitzu ekologikoak hobetzeko. Ideia bat egiteko, hazkunde azkarreko

zuhaitz landaketak espezie potentzialez ordezkatzeko karbono metaketa %54 hobetzen du.

Hori guztia gutxi balitz, zuhaitzak landatu ordez basoak berreskuratuz gero, ingurune anitzago bat lortzen da eta ondorioz, paisaiaren edertasuna ere handiagotzen doa.

Helburu horiekin, Udala -Aldundia eta Jaurlaritzaren laguntzekin- lursailak erosten eta bertako basoak berreskuratze-ko beharrezkoak diren lanetan ari da azken hamarkadetan. Dagoeneko 150 hektareatik gora bereganatu ditu, batzuk lehendik basoak (gazteak) direnak eta gehienak espezie exotikoen landaketak. Egoera bakoitzak behar duen trataera aztertu eta aipatu diren helburuekin (karbono metatzea, biodibertsitatea eta paisaia) kudeatzen dira.

# Hemeroteka

## GAZAKO SARRASKIAREN AURKA (azaroak 8)

Euskal Herri osoan bezala, Itsasondan ere Palestinako herria pairatzen ari den sarraskiaren kontra gaudela ozen adierazteko elkarretaratzea egin zen. Bildutako lagunak plazan elkartu eta bertako egoera salatu zuten.



## GAZTAINA-JANA (azaroak 18)

Urtero legez, aurten ere izan dugu gaztainak dastatzeko aukera. Goizean goiz herriko haurrak eta euren familiak ibilaldia egin zuten eta ondoren frontoian elkartu ziren gainontzeko herritarrekin batera. Aurreko urteetan baina jende gutxiago egon arren, giro paregabea izan zen!



## KANTU AFARIA (azaroak 24)

Urtero legez, kantu afaria egin genuen Kuxkuxtu txarangako kideekin. Ohikoan baino jende gutxiago elkartu zen arren, giro aparte egon zen.




## TALO-JANA (azaroak 25)

Nola ez! Aurten ere, taloak gogoz jan ditugu! Ohiturari eutsiz, talde-lanean eta giro apartean dastatu ahal izan ditugu taloak. Jende ugari bildu zen frontoian, eta, giroa lagun, iluntze aparta izan genuen.



## KAMISETA SALMENTA (azaroak 25)

Talo-janean jendea bilduko zela aurreikusiz, herriko gazteek kamiseta salmenta egin dute. Azaroaren 25ean soinean janzteko kamiseta moreak egin dituzte. Bildutako diruarekin beste ekintza bat antolatzea izan dute helburu, Azaroaren 25eko aldarrikapenarekin bat egiteaz gain (beraiek azaldu digute 7. orrian)







### JOSTAILU AZOKA (azaroak 25)

Ongizateko taldekoek ere pentsatu zuten jendea bilduko zela, eta egun aparta zela jostailu truke azoka egiteko. Etxean erabiltzen ez ziren eta egoera onean zeuden jostailuak bildu eta beste batzuen-gatik trukatzeko aukera izan zuten herriko familiek.

### EMAKUMEEN INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA (azaroak 25)

Aurten ere Emakumearen indarkeriaren aurkako eguna dela eta elkarretaratzea egin da. Emakumeek etengabe eta modu sistemati-koan jasaten duten indarkeri mota oro salatu nahi izan dugu herriko plazan elkartzuz. Urtero, indarkeri salaketa kopurua handitzen doa eta erahildako emakumeen zenbatekoa ere.

Jende ugari bildu zen elkarretaratzean.



### SARE SOZIALEN INGURUKO HITZALDIA (azaroak 29)

Treba Gurasoak Aldundiko programaren barruko ekintza interesgarria izan dugu aurten ere. Sare sozialak, pantailek eta internetak izan ditzaketen abantaila zein arriskueta aritu ginen Rakel Gamito adituarekin. Adin ezberdinetako gurasoak gerturatu ziren hitzaldia eta oso interesgarria izan zela baloratu zuten. Gaia lantzen jarraitzeko aukerak aztertzen ari gara Gazteria foroan.



### GREBA FEMINISTA (azaroak 30)

Euskal Herriko mugimendu feministak egindako deialdiarekin bat egin zuen Itsasondok ere. Aurrez, bizpahiru aldiz elkartu eta egitarau oparo bat prestatu zen egun guztirako. Egund berean, lan-talde ezberdinetan jarri eta hausnarketarako guneak sortu ziren. Ondoren, bazkari kolektiboa egin ondoren, Ordizira joan ginen. Eskualde mailan egindako manifestazioara batu ginen.



### EUSKARAREN EGUNA (abendua 3)

Herriko gazteek antolatutako jolasak egon ziren Euskararen Egunean. 17:00etan frontoian elkartu eta bertaratutako haurrekin hainbat dinamika egin zituzten.



### AMELI ETA XIRRIKITUEN JOSTUNAK KONTAKETA MUSIKATUA (abenduak 12)

Haur zein helduentzako saio bana eskaini ziren. Biak ala biak ezin politagoak. Lehenik, haurrentzako emanaldia izan zen, magiaz beteriko saioa, zuzeneko musikarekin. Ondoren, iruditegia moldatu eta kontalari berek helduentzako kontaketa egin zuten. Bertaratu zirenek oso saioa ederra izan zela esan zuten.



### OLENTZERO ETA MARIDOMINGI (abenduak 24)

Olentzerok eta Maridomingik egin zuten aurtengoan ere bisita gurean. Herriko haurrak eta familiak zain zituzten; haien etorrera gauean jasoko zituzten oparien seinale baitzen. Ohiko hamaiketako ere gogoz hartu zuten bertaratuek. Giroa lagun, egun aparta izan zen. Guraso elkartekoek 2 saski ederren zozketa ere egin zuten.



### TALO IKASTAROA HAURREKIN (urtarrilak 19)

lazko arrakasta ikusita, aurten bi taldetan antolatzea erabaki da. Lehen txanda herriko haurrentzat izan zen. Rosario gidari izanda, haur taldea bildu zen. Etorkizuneko talo-janak ziurtatuak daude!



### TALO IKASTAROA HELDUEKIN (urtarrilak 26)

Aipatu bezala, bi taldetan egin da aurten ikastaroa. Helduen txandan ere bildu zen taldea, emakumeak guztiak. Haurrek baino eskarmentu gehiago zuten hauek, baina beti ikasi eta hobetu daiteke!



### ESKOLARTEKO TXIRRINDU PROBA (otsailak 4)


Ijittu kirol elkartearen eskutik, eskolarteko kirol proba izan genuen. Lehenik, herriko haurrei eman zitzaizen aukera parte hartzeko eta 15 bat haurrek egin zuten proba. Ondoren, eskolarteko neska-mutil benjamin eta alebinek egin zuten.



## Liburutegiko berrikuntzak

### Arrakasta

Jasone Osoro



### Ez erran inori

Maddi Ane Txoperena

### El tiempo de las moscas

Claudia Piñeiro



### Burdin hesien arteko erresistentzia

Iñaki Egaña

### La saga de las curanderas

Marisa Castro



### Solo humo

Juan José Millás



### Una historia propia

Donna Leon




### El mundo en que viví

Ilse Lasa



### Txikia ur handiak eraiten

Iñaki Egaña



### Vamos a morir todos

Emily Austin



## liburu gomendia



### LOAK EZKUTATZEN DUENA

Patxi Zubizarreta

Insomnioari buruzko erreportaje bat balitz bezala hasten da kontakizuna, baina handik lasterrera detektibe-nobela bat bihurtzen da, bere misterio, jazarpen eta guzti; eta, horrekin batera, amodiozko eleberri baten kutsua hartzen du, bere zita, sedukzio eta maite-jolasekin. Eta hori dena, tonu jostalari,

arin bezain dotore batean idatzia. Patxi Zubizarretak komedia xarmangarri bat ondu du liburu honetan, ohi duen moduan ipuinez, hitz-jokoz, hango eta hemengo erreferentziaz josiz bere narrazioa, irakurlea pasiera gozo batean eskutik eramanez eta aldi behin ustekabeko bat emanez. Kontalari ezin trebeago baten maisulana, Augustin Zubikarai saiduna izandakoa.

## Errezeta

23  
errezeta



## Taloaren errezeta

### 4 pertsonentzat:

- Arto-irina (350 gr)
- Ura (250 ml)
- Gatza
- Barruan jarri nahi ditugun osagaiak (txorixoa, hirugiharra, txokolatea, gazta...)

### Prestaketa:

Arto-irina ontzi baten jarri.

Irin tontorraren erdian zuloa egin eta gatz pixka bat bota.

Ontzi baten ura berotu eta apurka gehitu.

Eskuz oratu harik eta ore trinkoa eta bateratua geratu arte, eskuetan itsasten ez dela.

Gero zapi busti batez estali ore eta 30 minutuz utzi.

Ore-bolatxoak egin eta zanpatu harik eta opil mehea lortu arte.

Plantxa berotu eta opila beronen gainean jarriz alde bietatik egin, txigortu arte.

Barruan jarri nahi diogun osagaia prestatu eta barrura.

On egin!



# agenda

## OTSAILA

**28:** HITZAREko batzar orokorra, 18:00etan, udaletxean.

## MARTXOA

- 4:** Lurralde eta ongizate batzordeak, udaletxeko bilera gelan.  
**6:** Herri bizitza batzordea, 19:00etan, udaletxeko bilera gelan.  
**9:** Emakume bazkaria, 14:00etan, Arbel-Aitz elkartearen. 'Magma mia' Beatriz Egizabalen bakarriketa, 17:30ean, Arbel-Aitz elkartearen.  
**15:** Ianire, Eider, Esti solasaldia + emanaldia. 19:00etan, Bizi nahi elkartearen.  
**14-24:** Korrika (egitaraua 10-11. orrian).  
**28:** Bingoa, 17:00etan, jubilatuetan.

## APIRILA

- 8:** Lurralde eta ongizate batzordeak, udaletxeko bilera gelan.  
**10:** Herri bizitza batzordea, 19:00etan, udaletxeko bilera gelan.  
**10:** Ipuin kontaketa Maite Frankorekin, 17:00etan, Haur txokoan.  
**15-19:** Kirol astea: Realaren puzgarriak, Smithy "jarduera fisikoa eta elikadura", Kirol egokitu saioa...  
**23:** Liburuaren eguna, JUANA liburuaren ikusentzunezkoa, 19:00etan, liburutegian.  
**25:** Bingoa, 17:00 jubilatuetan.  
**26:** 'Euskaraz barra barra' ihesgela autobusa, 17:00etatik 20:40era (4 txanda).

## MAIATZA

- 3-4-5:** Urkiko jaiak.  
**6:** Lurralde eta ongizate batzordeak, udaletxeko bilera gelan.  
**8:** Jai batzordea, 19:00etan, udaletxeko bilera gelan.  
**11, 12:** Urkiko asteburu magikoa.  
**17:** Herriko ekoizleen azoka, 18:00etan, plazan.  
**22:** Aurretiazko borondateen dokumentua (testamento vital) hitzaldi praktikoa.  
**24:** Kanpora sartzen antzerkia, 19:00etan, eskolako arkupean.  
**29:** Aurretiazko borondateen dokumentua (testamento vital) tailer praktikoa.  
**30:** Bingoa, 17:00etan, jubilatuetan.

## EKAINA

- 3:** Lurralde eta ongizate batzordeak, udaletxeko bilera gelan.  
**5:** Jai batzordea, 19:00etan, udaletxeko bilera gelan.  
**7:** Bertso saioa, 19:00etan, frontoian.  
**8:** Herri eguna.  
**21,22,23:** Garagardo azoka.  
**21:** Starblues taldearen emanaldia, 19:00etan, plazan.  
**23:** San Juanak.  
**27:** Bingoa, 17:00etan, jubilatuetan.

- \*\*\* Asteazkenero memoria tailerra, jubilatutako elkartearen eta gantxillo tailerra Arbel-Aitz elkartearen.**  
**\*\*\* Martxoaren 1ean hasita, bost ostiraletan, antzerki tailerra.**  
**\*\*\* Maiatzetik aurrera txalaparta ikastaroa eskainiko da.**

# telefono interesgarriak

Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	
Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz elkartea	943 881339
Itsasondokoop	722 366 173
Arrastoa Botika	943 882148
Medikua	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna	943 880012
Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ilepaindegia	943 160285
Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	678 035788

### Ale honetan parte hartu dutenak:

Ainhoa Barandiaran  
Amaia Ugalde  
Danel Etxeberria  
Erkuden Mendizabal  
Gaztelekuko gazteak  
Iñaki Aizpuru  
Iturririkiki guraso elkartea  
Haur eskola  
Hitza komunitatea  
Jone Iturrioz  
Maite Laso  
Nagore Etxeberria  
Nerea Manzisidor  
Ongizate lantaldea  
Unai Aldasoro  
Urkipe eskola  
Urkipe eskolako haurrak

Itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriatik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreez edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:  
943 88 11 70  
[itsasondo2.0@itsasondo.eus](mailto:itsasondo2.0@itsasondo.eus)

Lege gordailua: ISSN:  
SS-297-2010 2171-5572

**GOGORARAZTEN DIZUEGU  
HURRENGO ALEA EKAINEAN  
IZANGO DUZUTELA ETXEAN.**



**UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA**